

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Eguna: 2019-10-23

Lekua: RKE

Ordua: 17:00etatik 19:15era

Bertaratutakoak:

Enpresa ehuna: Izaskun Rama

Berritzegune: Rosario Franco

Eskuz-esku: Isabel Perez

Gizatiar: Begoña Bas

Bilgune feminista: Uxune Iriondo

EH Bildu: Arantza Gutierrez

EAJ-PNV: Keltse Eiguren

EP: Paula Amieva

PSE: Estibaliz San Sebastian eta Mihaela Jilavu

PP: Javier Elorza

LAB: Karlos Goñi

Batzordeburua: Carmen Diaz

Idazkaria: Bego García

Bertaratu ez direnak:

Mujeres con Voz

Gai-zerrenda

- Aurreko akta onestea
- Batzordekideak aurkeztea
- Berdintasun Arloaren aurkezpena
- Batzordearen antolamendua eta funtzionamendua

- Arazoaren 25eko kanpaina
- Galderak eta eskaerak

Aurreko akta onestea

Aurreko legegintzaldian Berdintasun Batzordea osatzen zuten eta gaurko bileran izan diren pertsonak aurreko batzarreko akta onetsi dute.

Batzordekideen aurkezpena

Carmen Diazek, Berdintasuneko zinegotziak, bere burua aurkeztu du, eta bertaratuei euren burua aurkezteko eskatu die, baita legegintzaldi honetako batzordearengandik zer espero duten azaltzeko ere.

Bilgune feminista: Ez dute batzorde honengan itxaropen handirik, baina gauzak aldatzeko aukera izan dadin espero dute.

Berritzegune: Berritzeguneren lehentasunak baterako hezkuntza eta berdintasuna dira. Batzorde honetan jorratzen den guztiaren berri emango diote dagokion genero mintegiari.

EP: Batzordean parte hartu ahal izateaz poztzen da. Batzordea erabilgarria izatea eta bertan hartzen diren erabakiak kontuan har daitezela espero du. Eduki hori dezaten espero du. Eduki horiek kontuan hartu ditzatela udalbaltzan modu lotesle, erabakitzaile diren burubidetan.

Gizatiar: Erabilgarria izatea espero du.

PSE: Ikertzeko eta ikasteko espazio bat izan dadin espero du, gizartea aldatzeko eta hobetzeko asmoarekin. Partekatzeko espazio bat izan dadin espero du.

Eskuz-esku: Batzordean proposatzen dena martxan jar dadin espero du.

EAJ: Gobernu-taldea orientatzeko balio duten ikuspuntuak planteatzeko parte-hartze foro bat izan dadin espero du.

PP: Batzorde honetako ordezkariak orekatuta ez dagoela nabarmendu du, eta gizonei berdintasunaren kontua gutxiago axola zaielako ote den galdetu du. Berdintasun eraginkor eta erreal baten alde egin du.

Enpresa ehuna: euren ikuspegia batzordeari helaraztea espero du eta batzorde hau gauzak eraikitzeke erabilgarria izan dadila.

LAB: Berdintasunaren arloan hobetu beharreko gauza asko dagoela uste du eta foro honek gauzak hobetzeko balio izatea espero du.

EHBILDU: izan duten esperientzia kontuan hartuta, ez dute itxaropen handirik; gauzak egin diren arren, ez dute eraginik izan, ez baita politika feministarik egon. Emakumeen etxea martxan jartzea espero dute.

Batzordearen antolamendua eta funtzionamendua

Berdintasun zinegotziak adierazi du hamar urte igaro direla berdintasun batzordea sortu zenetik, eta komeni dela haren ibilbidearen eta esperientziaren inguruan hausnartzea. Horretarako, sistematizazio-prozesu bat abian jartzea proposatu du, hau da, kide zaharrei eta berriei elkarriketak egitea, baita etorkizuneko itxaropenak eta proposatzen diren aldaketak estaltzea ahalbidetuko duen talde-tailerren bat egitea ere.

Halaber, Carmen Diazek legegintzaldi honetarako berdintasun alorreko konpromiso nagusien berri eman du:

- Berdintasunari buruzko ordenantza egitea.
- Berdintasunaren alorreko diagnostikoa egitea.
- Berdintasunaren V. plana egitea.
- Genero-ikuspegia barne hartzen duen aurrekontu-proposamena.
- Emakumeen Etxea.
- Protokoloa, koordinazioa, arreta, sarrera bakarra, erantzun publikoa eta ordainak berrikustea.
- Udaleko langileei zuzendutako berdintasunaren alorreko prestakuntza-plana.

Berdintasun Arloaren aurkezpena

Carmen Diazek azaldu du gaur egun berdintasun arloa non dagoen: Gizarte Kohesioaren Arloan. Une hauetan osatzen ari diren arlo bat da; esku-hartze komunitarioa eta oinarrizko gizarte segurantzaren barne hartuko ditu. Herri hezitzaile bat sortzeko barne-prozesu batean murgilduta gaude.

Zinegotziak eta berdintasun teknikariak berdintasun zerbitzuaren inguruko azalpen txiki bat eman dute:

- Getxoko Berdintasun Planak Berdintasunaren 4/2005 Legearen agindu bati erantzuten dio. Lege horren ondorioz, tokiko administrazioak behartuta daude euren planak Emakundek EAE osoarentzat egindako planean zehaztutako jarraibideei jarraiki egitera.
- Getxoko Berdintasunaren IV. Planaren aurkezpen labur bat egin du, eta bi ardatz nagusiak nabarmendu ditu: Gobernantzarrena (zeharkako politikak), udaleko eguneroko jardunean berdintasunaren ikuspegia integratzera bideratutakoa; eta esku-hartzeen ardatzaren (politika sektorialak), herritarrei bideratutakoak: ahalduntzea, gizarte-antolamendua eta indarkeria.
- Berdintasun zerbitzuaren lan-ildo nagusiak. Bertaratutako pertsona guztiei dokumentu bana eman zaie, jarduketa-ildo nagusiak jasotzen dituenak. Ondoren, labur-labur azaldu dira.

Arazoaren 25eko kanpaina

Berdintasun teknikariak aurtengo azaroaren 25eko kanpainaren proposamena azaldu du, izen hau izango duena: Indarkeria matxistarik gabeko espazioen sarea Getxon.

Aurten ere, herritarrak indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina bat egingo da, indarkeria horren modalitate eta adierazpen guztiak salatze eta desagerrarazteko helburuarekin. Ostalaritzako eta saltokietako espazioak aukeratu dituzte, ulertzen dutelako toki publiko horietan gertatzen dela indarkeria matxista, bai modu sinbolikoan bai modu esplizituan ere espazio publiko jakin batzuetan.

Bi ekintza proposatu dira:

- Ekimen honekin bat egin duten saltokiek euren erakusleihoak beltzez apaindu ditzatela azaroaren 22an, 23an, 24an eta 25ean. Halaber, sinbolo bat (zehazteke dago) jarriko da binilo formatuan, espazio horretan indarkeriarik gertatzen ez dela adierazteko.
- Halaber, aurreko ekintza osatzeko asmoz, atxikimendu-gutun bat egingo dugu, saltokiak indarkeria matxistaren aurka modu esplizituan konprometitu daitezten.

Ekintza hau azaroaren 25a hurbiltzen denean hasteko asmoa dugu, baina urte osoan zehar iraungo duen kanpaina bat izan dadin nahi dugu, hartara, kanpainarekin orain bat egin ez duten saltokiak eta erakundeak kanpainarekin bat egiten joan daitezten.

Momentuz, Algortako Dendak-ekin arituko dira lankidetzan; gainera, 35 saltokik dagoeneko kanpaina parte hartzeko interesa agertu dute. Getxo Enpresaren erantzuna jasotzeko zain gaude.

Izaskun Ramak proposatu du gonbidapen hori Romotik Romora elkarteari ere helaraz diezaiozula, izan ere, Romoko saltokiak ez daude elkarte horietan ordezkaturik. Gaude elkarteak, aniztasun funtzionalaren ikuspegitik lan egiten duenak, ere bat egin dezan proposatu du.

Estibaliz San Sebastianek kalean ekintzaren bat egin dadin proposatu du, kanpaina osatze aldera. Paula Amievak proposamenarekin bat egin du eta merkatariak parte har dezaten proposatu du.

Uxune Iriondok esan du merkatariak eta ostalariak enpresa txikiak direla eta enpresa handiengan ere pentsatu beharko genukeela: Getxo Kirola, RKE eta saltoki handiak. Emakumeek saltoki handietara egiten dituzten desplazamenduen inguruan hausnartzeko proposatu du, edo emakumeek lanpostu horietan jasaten duten prekaritatearen inguruan.

Javier Elorzak gizonetako politiketan integraztearen alde egin du. Saltokiak espazio feminizatuak direla ulertzen du, eta ekintzak gizonetako gehiago bildu beharko lituzkeela.

Karlos Goñik proposatu du dekalogoia eta logoa udalaren espazio handietara hedatu dadila: RKE, Getxo Kirola eta abar.

Keltse Eigurenek adierazi du beste urte batzuetan udalerriko eraikin enblematikoetan pankartak jarri izan direla puntu lilarekin. Ekimen horri jarraipena emango zaiola erantzun diote.

Paula Amievak aurtengo adierazpen instituzionalaren inguruan galdetu du. Aurten ere egingo dela erantzun diote. Ildo horretatik, Eudel ordainaren inguruko proposamen bat egiten ari dela adierazi da.

Galderak eta eskaerak

EPko ordezkariak 2018ko kudeaketa-planaren inguruan galdetu du. Egin gabe dagoela esan diote.

EH BILDUKo ordezkariak galdetu du ea berdintasunaren alorreko prestakuntza-plana udalarekin kontratuak dituzten enpresetara zabalduko den. Hori egiteko asmorik ez dagoela erantzun diote, izan ere, horretarako daude kontratuetakoa berdintasun-klausulak.

Gizatiar elkarteko ordezkariak euren elkarteak azaroaren 19rako, 20rako eta 21erako emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan RKEan antolatu duen ekitaldiaren berri eman du.

EPko ordezkariak Estatu Itunaren dirulaguntzaren inguruan galdetu du. Berdintasun teknikariak egingo diren bi ekintzak zeintzuk diren azaldu du: kaleko binilo-kanpaina eta autodefentsa feministari buruzko prestakuntza jai batzordeko laguntzaileentzat.

EH BILDUKo ordezkariak udaleko langileen aitatasun baimenaren inguruan galdetu du. Legeak dagoeneko hamasei asteko baimena jaso duen arren, Getxoko Udalean, momentuz, zortzi aste baino ez dira jaso.

LABeko ordezkariak udaleko langileei berdintasunaren alorreko prestakuntza eskaintzea proposatu du.

Eztabaidatu ostean, batzordek ostegunetan, arratsaldeko 17:00etan, egitea adostu da, hilaren lehenengo hamabostaldian.

Datorren batzordea egiteko eguna adostu da: 2019ko abenduaren 12a.